

SOLDATA ARRAKALA MURRIZTEA

ZUEN LANA DA, GURE BORROKA DA!

“Soldata arrakala murriztea denon lana da” lelopean, Eusko Jaurlaritzak, eta gainontzeko botere publikoek, berriro ere kanpaina handien politika moduari ekin diote, gizateriaren edozein hondamendi eta gaitzen aurrean egin ohi duten bezala: pobrezia, desberdinkeria, arrazakeria, diskriminazioa... eta, orain, emakume eta gizonen arteko soldata arrakalaren txanda da. Jakin badakigu hau ez dutela bakarrik egiten, hau patronalarekin batera, elkarlanean eta aliantzetan egiten dute. Finean interes berdinak defendatzen dituzte; sistema kapitalista heteropatriarkalaren interesak.

Erraza da norberaren erantzukizunak saihestea, denon artean apur bat banatzen badira. Baina horrek ez digu balio. Egoera hauen atzean arduradun zehatzak egon badaude; sistema kapitalista, hau da, ordena patriarkal eta esplotatzailea, ere existitzen den bezala. Arazoak ez dira ezerezetik sortzen.

Urte luzeak dira gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala salatzen ari garela. Generoaren arabera soldata arrakala arazo politikoa da eta gizon zein emakumeok egiten ditugun lanen truke ordain ezberdinak jasotzetik baino harago doa. Sistemaren erreminta da eta hainbat funtzio betetzen ditu: emakumeok egiten ditugun lanei balioa kentzen die; kontziliazio neurriak -halakorik dagoenean- emakumeok eska ditzagula bultzatzen du, aguk jasotzen dugun soldata baxuagoa denez gero; emakumeoi jardunaldi partzialak

eta behin-behineko kontratuak inposatzen dizkigute, gure soldatak bigarren mailakotzat hartuak izaten direlako; lan merkatutik botatzen gaituzte, zaintza lanak geure gain har ditzagun...

Sexuaren arabera lan banaketaren testuinguruan gertatzen da soldata arrakala. Hau da, lan egiten duen pertsonaren sexu/generoaren arabera daude bananduta lan horiek eta horren arabera ere onartzen eta balioesten dira sozialki. Hau ez da neutroa eta ez da kasualitatea. Gizon eta emakumeok burutzen ditugun jarduerak balioztapen ezberdina izaten dute (ordaindutako jarduerak eta ez ordaindutakoak tarteko) eta, honen arabera, gizonezkoek egiten dituzten horiei balio eta garrantzia handiagoa ematen zaie eta emakumezkoek egiten dituztenak, ordea, balio txikiagoak omen dira.

Hortaz, **sexuaren arabera lan banaketa deuseztatzea** ezinbestekoa da soldata arrakala ezabatu nahi badugu, banaketa horrexetan oinarriturik dagoenez gero.

Horregatik, LABen proposamen zehatza egin diegu patronalari, enpresei, instituzioei eta botere publikoiei:

Lanpostuen balorazio berriak egin daitezela, oro har eta salbuespen barik, genero ikuspegia kontuan hartuta.

LAB

Gaur egun, lanpostuak baloratzen dira segun eta nork betetzen dituen (gizonezkoek edo emakumezkoek), lanpostuen edukien arabera baloratu ordez. Eta, era berean, lanpostu bakoitzaren hainbat baldintza ikuspegi androzentrikotik izaten dira aztertuak. Hau da, gehienbat gizonezkoek betetzen dituzten lanpostuak gogorragoak, arriskutsuagoak, nekagarriagoak... iruditzen zaizkigu eta, hortaz, balio handiagodunak. Ikusmolde sexista dago honen guztiaren atzean. Lan feminizatuak ere baldintza larrigarriak beterik daude: zaintzen diren pertsonen pisua mugitu behar izatea, guztiz toxikoak diren garbiketa produktuak erabiltzea, mugimendu errepikakorrak egin behar izatea... faktore hauek, ordea, ez dira kontuan hartzen eta ez zaie balio berbera ematen.

Lanpostuen balorazio berriak egitera dei egiten dugu, sexista ez den ikuspegitik. Hau da, genero ikuspegi azter daitezela, testuinguru kapitalista eta heteropatriarkala kontuan hartuta eta, horrela, lanpostuak eta gure jendartearen estimatzen eta kalifikatzen diren modua ere beste ikuspuntu honen arabera balioetsi daitezela.

Balorazio hauek egin eta gauzatu arte, **zuzenketa faktorea** aplikatzeko proposatzen dugu. Zuzenketa faktore honi **zor patriarkal** deituko diogu. Emakumeok, gaur egun, gutxiago kobratzen dugu, lan baldintza txarragoak dauzkagu, kontratu partzialak eta aldi baterakoak gure borondatearen kontra onartzera behar-tuta gaude; aitzitik, gizonezkoek gehiago kobratzen dute eta lan baldintza hobetoak izaten dituzte (oro har eta emakumezkoekin konparatuta), gizon izate hutsagatik.

Horrexegatik esaten dugu emakumeekin zor patriarkala dagoela; hein handiago edo txikiago batean, zaintza lan guztiak eta bizitzaren sustengurako beharrezkoak diren lan guztiak gure bizkar eta doan geratu direlako eta lan hauetatik sistema kapitalistak zein jendarte osoak atera du probetxua. Honek emakumeoi ekarri digu lan merkatuan menpeko eta bigarren mailako postu edo egoera bete behar izatea.

Beraz, **kitatu beharreko zorra** egon badago. Ez dugu esan nahi arazoa konponduko denik zor hori behin kitaturik. Zor patriarkala da sistemak zor diguna, lapurtu egin digulako, baina gure helburua ez da hor amaitzen. **Zorra kitatzea neurri iragankorra da**, harik eta zaintza lanen banaketa injustua, kolektiboki eta jendarte osoaren artean, berrantolatu eta konpondu arte. Hau da gure azken helburua eta horren alde ari gara borrokan.

Enpresa eta instituzio publikoei exijitzen diegu azter dezaten zein den modurik egokiena zor patriarkal hau kitatzeko, baina, beti ere, hurrengo hau har dezatela erreferentziazat:

- > 1.200 euroko gutxieneko soldata,
- > osagarrien berrikuspena, joera androzentriko oro ezabaturik,
- > lan kualifikatuaren eta ez kualifikatuaren kontzeptua (banaketa hau zeren arabera egiten ari den aztertu behar da),
- > lan berdinak eta balio berekoak identifikatu,
- > mailak berriro esleitu daitezela, genero ikuspegi kontuan hartuta...
- > **Oihartzun faktorea** aplikatzea: lanak bizitzaren sustenguan duten eraginaren arabera baloratzea (adibidez, pertsonak zaintzea bizitzaren iraunkortasunean eragin handia du, gurpilak fabrikatzea aldiz, ez).

Honi buelta emateko ordua da. Benetan baldin badago honetarako borondate eta nahi politikorik eta benetan denon lana bada, ekintzak nahi ditugu, kanpainak ordez.